

Ozen salatu dute erakundeen eta Israelen arteko konplizitatea

BEÑAT PARRA :: 13/01/2024

Konzentrazioa burutu zuten salatzekeo Gipuzkoako Foru Aldundiak ohorezko domina eman diola CAF enpresako presidente Andres Aizkorretari, eta Ertzaintza manifestarien aurka oldartu zen bi aldiz.

Palestinarekin Elkartasuna plataformak deituta, hamarnaka lagun elkarretaratu ziren ostiral arratsaldean Gipuzkoa plazan, aldundiaren egoitzaren aurrean. Elkarretaratze zaratatsua izan zen, ozen salatzekeo Gipuzkoako Foru Aldundiak ohorezko domina eman diola CAF enpresako presidente Andres Aizkorretari.

Ordubete inguruz egon ziren elkarretaratuta eta zarata handia egiten aldundiaren aurrean. Ertzaintzak gunea erabat hesituta zuen, eta mobilizazioan zehar tentsioa areagotzen joan zen. Hain zuzen ere, ertzainak bi aldiz oldartu zitzaizen protestan ari ziren herritarrei, borrekin kolpatuz.

CAF enpresa hainbat tren linea handi garatzen ari da Israelen eta, horregatik, enpresa estatu sionistaren “konplize” dela salatu dute: “CAFek eta Saphir eraikuntza enpresa israeldarrak Jerusalemgo tren arinaren hedapenean parte hartzen du (JLR ingelesez). Tranbia horrek Jerusalemgo auzo okupatuak Zisjordaniako koloniekkin lotuko ditu”.

“Proiektu horrek palestinarren jabetzak konfiskatzea, lurralde palestinarra anexionatzea, Jerusalemgo auzoetatik biztanle palestinarrek kanporatzea eta kolono sionistak Palestinakolurralde okupatuan ezartzea ahalbidetzen du. Erakunde Sionistak nazioarteko komunitatea deritzon eta CAFen moduko enpresen konplizitatea behar du. Hau gabe, ezin du mantendu palestinarren aurkako okupazio, kolonizazio eta apartheid erregimena. Eusko Jaurlaritzaren konplizitateari esker, euskal foru aldundien laguntzari esker eta euskal enpresen bultzadari esker genozidio bat gertatzen ari da Palestinan”, gaineratu zuten.

Ozen salatu dute erakundeen eta Israelen arteko konplizitatea : Irutxuloko Hitza

<https://eh.lahaine.org/ozen-salatu-dute-erakundeen-eta>